



JENDAURREKO ZERBITZUAK

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIAN TXERTATZEKOAK

Hizkuntza gaitasunari buruz

"Lizitatzailleak adierazi egin beharko du zein langile izendatzen dituen kontratua burutzeko, eta langile horietako bakoitzak egiaztatu egin beharko du bere lanpostuari dagokion hizkuntza-gaitasuna:

-

Hizkuntzen erabilerari buruz

"Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du.

Beraz, zerbitzua ematean izaten diren herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz gauzatzeko ahalegina egingo du enpresak. Horretarako, enpresa esleipenduneko langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu-hartzaileak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta euskarari emango dio lehentasuna.

Eta gainera:

- Proiektuak, txostenak eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.
- Udaleko atal elebidunekin ahoz nahiz idatziz dituen harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira."

Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz

"Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio, baina kontratazioa eragin duen udal departamentuaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua deuseztatzeko."



KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN AGIRIAN TXERTATZEKOAK

Hizkuntza gaitasunari buruz

Hizkuntza betebeharrak

"Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera eman beharko du zerbitzua enpresa adjudikatarioak. Horretarako, preskripzio teknikoan agirian eskatutako hizkuntzazko gaitasuna duten langileak adskribatu beharko dizkie lanpostuei.

Enpresak horrelako langileak badituela akreditatze aldera, kontratazioko mahaiak egindako adjudikazio-proposamena jasotzen duenetik kontaktzen hasi eta bi egun balioduneko epean, kontratatze prozedura kudeatzen duen departamentuak eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatuileari errekerituko dio bost egun balioduneko epean, Udalak egindako errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengotik kontaktzen hasita, identifika ditzala kontratua gauzatzeko behar diren lanpostuak betetzeko izendatu dituen langileak, adieraziz nolako mailak dituzten hizkuntzazko gaitasunean eta, hala dagokionean, dauzkaten sinestamenduak erantsita.

Baldin eta langile horietakoren batek edo inork ere ez badu eskatzen zaion hizkuntzazko gaitasuna, edota gaitasun hori akreditatzen ez badu, behar duten langileei azterketak edo mailaketa-probak egingo dizkie Udalak, SPKLTBko 151.2 artikuluan aipatzen diren dokumentuak aurkezteko baldintza-agiri honetan finkatutako epearen barruan. Baldin eta, eskatutako hizkuntzazko betebeharrak betetzen dituzten hautagaiak falta zaizkiolako, lanposturen bat bete ezinik geratzen bada, lizitatuileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, prozedura bera egingo da hurrengo lizitatuilearekin, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Agiri hauen bitartez egiaztatuko da hizkuntzazko gaitasuna: euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko dekretua aldatzen duen 48/2009 dekretu otsailaren 24koak araututako titulu eta ziurtagiriak.

Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntzazko titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuetsitako kasuak.

Dokumentu honetan langileen hizkuntza-gaitasunari buruz ezartzen diren derrigortasunetatik salbuetsita egongo dira Eusko Jaurlaritzak administrazioan zuzenean lan egiten duten langileentzat zehaztutako kasu berberak, hain zuzen ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak zehazten dituenak.

Zerbitzu bat kontratatzerakoan, subrogatutako langilerik badago, ez du hizkuntza-gaitasuna egiaztatze derrigortasun berririk izango. Hala ere, zerbitzua emango duen enpresak hizkuntza-prestakuntza plan bat aurkeztu beharko du subrogatutako langileek betetzen dituzten lanpostuen hizkuntza-gaitasunak lor ditzaten. Hori guztia, subrogazioari buruzko legediak dioenaren kaltetan izan gabe.

Baldin eta, behin kontratazioa adjudikatuta, hizkuntzazko gaitasuna akreditatu duten langileetakoren bat beste pertsona batek ordeztzen badu, pertsona horrek ere akreditatu egin beharko du hemen ezarritako hizkuntzazko gaitasuna. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontraturiko langileen ordezkapenen kasuan ere.

Baldin eta zerbitzu horretarako eskatutako hizkuntzazko gaitasuna akreditatuko duen lizitatuile bakar bat ere ez badago, Udalak lizitazioko deialdia bete gabe utziko du, salbuespen modura, eta eskatutako hizkuntzazko gaitasuna enplegatuen gutxienez % 80k betetzen duen lizitatuileari adjudikatu ahalko dio."



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO